

Gipuzkoak deskontuen plan berri bat abiarazi du, ingurumenaren jasangarritasunaren mesedetan eta inflazioaren ondorioak arintzeko

Urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean, eta onuradun izateko, ViaT, TAG edo Abiatu sistema bat izan beharko dute eta Bidegin alta eman.



2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, Gipuzkoak bere edukiera handiko sareko bidesari-errepideen erabiltzaile guztien arteko deskontu-plan berria jarriko du abian. Onuradunen artean sartuko dira salgaien garraioa, bidaiarien garraio kolektiboa, jarduera ekonomikoa duten ibilgailu arinak eta ibilgailu arin guztiak, jatorria edozein dela ere. Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatuak egin du iragarkia, Alfredo Etxeberria Bidegi foru-sozietateko zuzendariarekin batera egindako prentsa-agerraldian.

Erabileragatik ordaintzeari buruzko Europako Zuzentaraua eguneratuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bidegiren bidez, plan bat aktibatu ahal izan du, salgaien garraioan ez ezik, autonomoei, autokarrei, autobusei eta TAG gailuak dituzten ibilgailu arin guztiei ere laguntzeko.

Plan berriarekin, garraio publikoak % 63raino murriztuko du bidesariaren zenbatekoa, eta gutxien kutsatzen duten salgaien garraioek % 25erainoko deskontuak lortu ahal izango dituzte, motorraren kalifikazioaren arabera. Gainera, autonomoek lehen aldiz % 13rainoko deskontua izan ahal izango dute bidesarrietan, egindako bidaia kopuruaren arabera. Maiztasunagatiko deskontu hori salgaien garraioari eta bidaiarien garraioari ere aplikatuko zaie. Ibilgailu arinei dagokienez, guztiek, jatorriagatik bereizketarik egin gabe, Abiatu gailuaren erabiltzaileek gaur egun dituzten deskontuak



baliatu ahal izango dituzte. “Erregaien eta lehengaien igoera geldieztina herritar guztiei eragiten ari zaie, eta Gipuzkoak bere bideen erabiltzaileei aplikatuko dien deskontu politika berriak, neurri batean, joan-etorrien garestitzea arintzen lagunduko du”, adierazi du Oiarbidek.

Planak bidesarrietan bide-erabiltzaile guztiei konpentsazioak aplikatzea aurreikusten du, eta horiek desberdinak izango dira ibilgailuaren ezaugarrien arabera. “Gure ustez, deskontuetarako laguntza horiek 44 milioi euro ingurukoak izango dira; urtero herritarrak aurreztuko dituztenak. Bidegik ordainduko ditu”, aurreratu du Oiarbidek

Salgaien garraioa

Salgaien errepideko garraioaren ingurumen-inpaktua murrizteko, ibilgailu eraginkorrenak deskontuak lortu ahal izango dituzte motorraren tipologiaren arabera.

Laguntzak honako hauek izango dira: ibilgailu astun elektrikoek, hibridoek eta gas-propulstsatuek, DGTren sailkapeneko O eta ECO etiketa duten ibilgailuek, % 25; EURO 6 ibilgailu astunak, % 20; eta EURO 5 etiketa duten ibilgailu astunak, % 15.

Era berean, % 13rainoko deskontuak jasoko dituzte (Europako Batzordeak baimendutako gehieneko ehunekoak) erabilera maiztasunagatik lurraldeko bidesariarekin grabatutako bide guztietan. 21. bidaiatik 50. bidaiara bitarte, salgaien garraioek % 10eko deskontua izango dute bidesarrietan; zifra hori % 13raino igoko da 51. bidaiatik aurrera.

Maiztasunagatik deskontuak 2023ko urriaren 1etik aurrera hasiko dira aplikatzen.

Bidaiarien garraio kolektiboa

Garraio publikoa erabiltzea berotegi efektuko gasen emisioa murrizten laguntzeko bide bat da, garraio publikoari esker ibilgailu partikular gutxiago ibiltzen baitira bide publikoan. Hori dela eta, Gipuzkoak aktibatu duen deskontuen planean % 50eko deskontuak sartzen dira autokar, autobus eta bidaiariak garraiatzeko helburua duten gainerako ibilgailuen tarifetan.

«Mugikortasun iraunkorraz ari garenean, ingurumen-onurak ez ezik, ongizate ekonomikoa eta soziala ere bilatzen ditugu. Garraio publikoak eta garraio kolektiboko gainerako ibilgailuek errepideak arintzen laguntzen dute», adierazi du Aintzane Oiarbidek.

Bidesariaren tarifa % 50 murrizteaz gain, garraio publikoek ere jasoko dituzte maiztasunagatik deskontuak.

Jarduera ekonomikoa



Gipuzkoako deskontuen plan berrian sartzen dira, halaber, ibilgailua batzuetan jarduera ekonomikorako erabiltzen duten autonomo edo erabiltzaile guztiak. Zuzentarauaren arabera, horiek ere maiztasunagatiko pizgarriak jaso ahal izango dituzte, % 13ko mugarekin.

Bide Azpiegituretako diputatua pozik agertu da sektore hori deskontuen planean sartu ahal izan duelako. Sektore horren jarduera, askotan, mugikortasunaren mende dago.

Maiztasunagatiko deskontu guztiak (salgaien eta bidaiarien garraioa eta jarduera ekonomikoak) 2023ko urriaren 1etik aurrera aplikatuko dira gaitasun handiko errepide gipuzkoarretan.

Ibilgailu arinak

Gipuzkoako mugikortasun-plan berrian ibilgailu arin guztiak ere sartzen dira, jatorria edozein dela ere, eta Abiatu gailua suten gipuzkoarrek orain arte jasotzen zituzten laguntza berberak jasoko dituzte, 35,25 euroko gastu-muga barne. «Europako zuzentaraua argia da erabiltzaileak jatorriaren arabera ez diskriminatzearekin, eta horretan oinarrituta, ezin dugu inor diskriminatu. Tratamendu bera emango diogu gure errepideetan zirkulatzen duen edozein erabiltzailereri», adierazi du Oiarbidek.

Diputatuak gogorarazi duenez, dagoeneko deskontu horiek dituzten gipuzkoarrez gain, neurri horien onuradun handienak honako hauek izango dira: egoitza Araban, Bizkaian, Nafarroan eta Iparraldean izanik lantokia Gipuzkoan duten erabiltzaileak, «Gipuzkoako ekonomiari laguntzen diotenak».

Era berean, Oiarbidek azpimarratu nahi izan du Abiatu erabiltzen duten gipuzkoarrek lurralde arteko gastuaren muga izaten jarraituko dutela AP-8a Bizkaian eta AP-1a Araban erabiltzeagatik. Gaur egun, gastu-muga hori hileko 50,93 euro da.


Neurri horiek guztiak, maiztasunagatiko deskontuak izan ezik, datorren urteko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean, eta, haietaz baliatu ahal izateko, ViaT, TAG edo Abiatu sistema bat izan beharko dute. Gainera, alta eman beharko dute Bidegin.

2022/10/28



Gipuzkoa activa un nuevo plan de descuentos en beneficio de la sostenibilidad medioambiental y para paliar los efectos de la inflación

Entrarán en vigor el 1 de enero y para beneficiarse deberán contar con un sistema ViaT, TAG o Abiatu y darse de alta en Bidegi.



A partir del 1 de enero de 2023 Gipuzkoa pondrá en marcha su nuevo plan de descuentos entre todas las personas usuarias de las carreteras de peaje de su red de alta capacidad. Entre los beneficiarios se incluirán los transportes de mercancías, los transportes colectivos de pasajeros, los vehículos ligeros con actividad económica y todos los vehículos ligeros, indistintamente de su procedencia. El anuncio lo realizaba la diputada de Infraestructuras Viarias, Aintzane Oiarbide, en la comparecencia de prensa que ha realizado junto con el director de la sociedad foral Bidegi, Alfredo Etxeberria.

La actualización de la Directiva Europea del pago por uso ha permitido a la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de Bidegi, activar un plan mediante el que ayudará no solo al transporte de mercancías, sino también a los autónomos, a los autocares, autobuses y a todos los vehículos ligeros que dispongan de dispositivos TAG.

Con el nuevo plan, el transporte público verá reducido el importe de su peaje hasta en un 63 % y los transportes de mercancías que menos contaminen podrán obtener descuentos de hasta un 25 %, dependiendo de la calificación de su motor. Además, los autónomos podrán, por primera vez, tener un descuento de hasta el 13 % en sus peajes dependiendo de la cantidad de viajes realizados. Este descuento por frecuencia también se aplicará al transporte de mercancías y al transporte de pasajeros. En cuanto a los vehículos ligeros, todos, sin distinción por procedencia, podrán acogerse a los descuentos que hoy en día disfrutaban los usuarios del dispositivo Abiatu. “La subida imparable de los combustibles y de las materias primas está afectando a toda la ciudadanía, y la nueva política de descuentos que Gipuzkoa aplicará a los usuarios de



sus vías, ayudará, en cierta medida, a paliar el encarecimiento de los desplazamientos”, ha señalado Oiarbide

El plan contempla aplicar compensaciones en los peajes a todos los usuarios de sus vías, que serán diferentes en función a las características del vehículo. “Estimamos que estas ayudas en descuentos supondrán un ahorro para los ciudadanos de 44 millones de euros anuales, que correrán a cargo de Bidegi”, ha adelantado Oiarbide.

Transporte de mercancías

Con el objetivo de reducir el impacto medioambiental del transporte de mercancías por carretera, los vehículos medioambientalmente más eficientes podrán obtener descuentos en función de la tipología del motor. “Europa está a favor de bonificar en peajes a los vehículos menos contaminantes y sostenibles, y nosotros comenzaremos a aplicar en nuestras vías de alta capacidad los descuentos según la categoría EURO a comienzos de año”, ha declarado Aintzane Oiarbide.

Las ayudas varían entre el 25 % que obtendrán los vehículos pesados eléctricos, híbridos y los propulsados por gas, vehículos con etiqueta O y ECO de la clasificación de la DGT; el 20 % que tendrán los vehículos pesados EURO 6, y el 15 % que podrán descontar de sus tarifas los vehículos pesados con etiqueta EURO 5.

También obtendrán descuentos de hasta el 13 % (porcentaje máximo permitido por la Comisión Europea) por frecuencia de uso en todas las vías grabadas con peaje del territorio. A partir del viaje 21 y hasta el 50, los transportes de mercancías obtendrán un descuento del 10 % en sus peajes; cifra que subirá hasta el 13% a partir del viaje 51.

Los descuentos por frecuencia comenzarán a aplicarse a partir del 1 de octubre de 2023.

Transporte colectivo de pasajeros

El uso del transporte público es una forma de ayudar a reducir la emisión de gases efecto de invernadero, al haber una menor cantidad de vehículos particulares circulando por la vía pública. Es por ello que en el plan de descuentos que ha activado Gipuzkoa se incluyen descuentos de un 50 % en las tarifas de autocares y autobuses. A este 50% se le añade el 13% por frecuencia de uso como a los transportistas.

“Cuando hablamos de movilidad sostenible, no sólo nos referimos a beneficios ambientales, también se busca el bienestar económico y social. Tanto el transporte público como el resto de los vehículos de transporte colectivo contribuyen a descongestionar las carreteras”, ha señalado Aintzane Oiarbide.

Actividad económica



El nuevo plan de descuentos guipuzcoano incluye también a todos los autónomos o usuarios cuyo vehículo es utilizado como parte de una actividad económica. Según la directiva, estos también podrán recibir incentivos por frecuencia, con un tope del 13 %.

La diputada de Infraestructuras Viarias ha mostrado su satisfacción al poder incluir en el plan de descuentos a este sector, cuya actividad esta, a menudo, sujeta a la movilidad.

Todos los descuentos por frecuencia (transporte de mercancías, de pasajeros y actividades económicas) se aplicarán en las vías de alta capacidad guipuzcoanas a partir del 1 de octubre de 2023.

Vehículos ligeros

El nuevo plan de movilidad de Gipuzkoa también incluye a todos los vehículos ligeros, independientemente de su procedencia, que obtendrán las mismas ayudas que hasta ahora recibían los guipuzcoanos poseedores del dispositivo Abiatu, incluido el límite de gasto de 35,25 €.

La diputada ha recordado que, además de los guipuzcoanos que ya gozan de esos descuentos, los más beneficiados por estas medidas serán las y los usuarios que, teniendo su domicilio en provincias limítrofes como Araba, Bizkaia, Nafarroa o Iparralde tienen su centro de trabajo en Gipuzkoa, “por lo que contribuyen a la economía guipuzcoana”.

Oiarbide también ha querido remarcar que los guipuzcoanos usuarios de Abiatu seguirán contando con el límite de gasto interterritorial por la utilización de la AP-8 en Bizkaia y la AP-1 en Araba. Actualmente este límite de gasto es de 50,93 euros mensuales.

Todas estas medidas, salvo los descuentos por frecuencia, entrarán en vigor el 1 de enero del próximo año y para poder beneficiarse de ellas deberán contar con un sistema ViaT, TAG o Abiatu. Además, deberán darse de alta en Bidegi.

2022/10/28